



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2020ko otsailaren 14a

23. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### E SAILA:

##### **Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gure erkidegoaren garapen ekonomikoan zuzenean esku hartuko duen Banku Publiko bat sor dezan. Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkeztu du (3. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da N-121 errepidea Belate-Bidasoa autobia bihur dezan. Navarra Suma talde parlamentarioak aurkeztu du (4. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Etxarri Aranazko eta Olaztiko liburutegien ordutegiak pareka ditzan liburutegi sareko gainerakoekin. Patricia Perales Hurtado andreak aurkeztu du (5. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 2020-2023 aldirako urte anitzeko finantzaketa-hitzarmen bat sina dezan Nafarroako Antzerki Sarearekin. Maiorga Erro Ramírez jaunak aurkeztu du (6. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lantalde bat sor dezan eta Europar Batasunaren Nekazaritza Politika Erkidearen aitzinean Nafarroak izan beharreko jarrera zehaztu dezan. Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztu du (9. or.).
- Adierazpen instituzionala. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak bat egiten du Zientziako Emakumearen eta Neskaren Nazioarteko Egunarekin. Eledunen Batzarrak onetsia (10. or.).

#### F SAILA:

##### **Galderak:**

- Galdera, POT 2-Nafarroa Atlantikoko Lurralde Antolamenduko Planaren eta POT 5-Ebroren Ardatzaren Lurralde Planaren esparruetan paisaiaren gizarte-ikuskerara dela-eta garatutako prozesuen emaitzei buruzkoa. María Aranzazu Biurrin Urpegui andreak egin du (11. or.).
- Galdera, Paisaiaren Europako Hitzarmenaren araberrako paisaia-politika ezartzeari buruzkoa. María Aranzazu Biurrin Urpegui andreak egin du (12. or.).
- Galdera, Nafarroako Aurrekontu Orokorren proiektua Kulturaren eta Kirolaren arloetan zehazteari buruzkoa. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (12. or.).

- Galdera, Superser zenaren lurzatiak saltzeari eta bertan paratuko den merkataritza-proiektuari buruzkoa. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (13. or.).
- Galdera, D ereduan aurrematrikulatzeko kanpainari buruzkoa. Bakartxo Ruiz Jaso andreak egin du (13. or.).
- Galdera, Foruzaingoko Trafikoaren eta Bide Segurtasunaren Arloak zerbitzu hori eksklusibotasunez emateko beharko lituzkeen foruzain berrien kopuruari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (14. or.).
- Galdera, trafikoa, ibilgailu motordunen zirkulazioa eta bide-segurtasuna direla-eta Lehendakartzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilaria zenak Estatuko aurreko Gobernuari 2019ko abenduaren 20an igorri zion Transferentzien Batzordearen akordio-proposamenari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (14. or.).
- Galdera, Ekonomia Zirkularra Garatzeko Agenda betetzeari buruzkoa. Ainhoa Aznárez Igarza andreak egin du (15. or.).
- Galdera, Erriberriko Oinarrizko Osasun Eskualdeko osasun-arretari buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (16. or.).
- Galdera, Iruñeko espetxeko presoei ematen zaien osasun-arretari buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (16. or.).
- Galdera, Doneztebeko Oinarrizko Osasun Eskualdeko pediatriako lanpostuari buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (17. or.).
- Galdera, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoko langileak hautatzeko prozesuei buruzkoa. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (18. or.).
- Galdera, Nasunvinsak sinatuta dauzkan eta sinatzeko asmoa duen hitzarmenei buruzkoa. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (18. or.).
- Galdera, etxebizitza babestuak direla-eta administrazio publikoak daukan lehentasunez erosi eta atzera eskuratzeko eskubidea baliatzeari buruzkoa. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (19. or.).
- Galdera, Superser zenaren eraikinak eraisteari buruzkoa. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (20. or.).
- Galdera, Tafallako saihebidetako obrei buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak egin du (20. or.).

**E saila:**  
**INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

**Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gure erkidegoaren garapen ekonomikoan zuzenean esku hartuko duen Banku Publiko bat sor dezan.**

*IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko otsailaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita gure erkidegoaren garapen ekonomikoan zuzenean esku hartuko duen Banku Publiko bat sor dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2020ko otsailaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**MOZIOAREN TESTUA**

Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoko eledun Marisa de Simón Caballero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

2008tik aitzina finantzaketaren iturria itxi izana bereziki pairatu zuten enpresa txiki ertainek eta langile-familiek, eta faktore hori erabakigarria izan zen, austeritate-politika masiboekin batera, krisi ekonomiko hura heldu zedin.

Gure erkidegoan, Nafarroako Kutxa finantza entitate gisa desagertu izanak are gehiago gaizkitu zuen arazoa. Nafarroan kokatutako entitate independente gisa desagertu zen gure erkidegoan kreditu bidezko finantzaketa lortzeko funtsezko tresna bat zena.

Nafarroako Kutxa zen Nafarroan ekonomia-nahiz banku-jarduera handiena zeukan finantza entitatea; nafar gizarte- eta enpresa-sarearekiko konpromiso sendoa zeukan, Nafarroako Gobernuak kontrolatutako interes publikoko entitate bat baitzen.

Kutxa desagertzeak hutsune bat utzi zuen, lehenbailehen bete beharko litzatekeena Nafarroaren garapen sozial eta ekonomikoaren mesedetan, areago berriz ere atzeraldi ekonomikoa etor daitekeelako aurreikuspen iluna betetzen bada.

Horregatik guztiagatik, Nafarroako Gobernuak helburu lehenetsi modura hartu beharko luke gure erkidegoaren garapen ekonomikoan zuzenean esku hartuko duen finantza-tresna publiko bat berreskuratzea.

Finantza-tresna publiko horren helburu izan beharko litzateke gordailuak eskuratzea, langile-familientzat finantza-zerbitzuetarako irispidea demokratizatzea eta Nafarroako enpresa-ehundura osatzen duten enpresa txiki eta ertainei finantzaketa ematea.

Jada iragan legegintzaldian, Nafarroako Gobernuak azterlan bat egin zuen, gisa horretako proiektu bat legearen nahiz zuzenbidearen ikuspuntutik bideragarria litzatekeela zioena. Iritsi da hori ezartzeko unea.

Proiektu horri kapitalizazioa emateko, Nafarroako Gobernuak badu Nafarroako Kutxaren desagertetik heldu den hondar-ondarea: Nafarroako Kutxa Fundazio Bereziaren 300 milioi euro inguru.

Erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du gure erkidegoaren garapen ekonomikoan zuzenean esku hartuko duen Banku Publiko bat sor dezan, gordailuak eskuratuko dituen, langile-familientzat finantza-zerbitzuetarako irispidea demokratizatuko duena eta

Nafarroako enpresa-ehundura osatzen duten enpresa txiki eta ertainei finantzaketa emanen diena.

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 31n

Foru parlamentaria: Marisa De Simón Caballero

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da N-121 errepidea Belate-Bidasoa autobia bihur dezan.**

### *NAVARRA SUMA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko otsailaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Navarra Suma talde parlamentarioak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita N-121 errepidea Belate-Bidasoa autobia bihur dezan.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2020ko otsailaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **MOZIOAREN TESTUA**

Navarra Suma talde parlamentarioaren Nafarroako Gorteetako eledun José Javier Esparza Abaurrea jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, N-121 errepiderako konponbide gisa autobia bat eraikitzeari buruzko honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

N-121 errepidea gaur-gaurko gaia izan ohi dugu etengabe, baina are gehiago egunotan, istripu tragikoak metatu direlako oraintsu, eta Nafarroaren lurralde-kohesiorako azpiegituren premia dagoelako; gauzak horrela, neurri zuzentzaileak hartzetik haragoko erabakiak hartzera gaude behartuta.

Errepide horrek jarduketa estrategiko bat eskatzen du, errepideari beste dimentsio bat emanen diona eta segurtasun nahiz egokitasun neurriak bermatuko dituena. Gaurko nahiz biharko trafiko-

dentsitateak horretara behartzen gaitu. Proiektu horri ezinbestean ekin behar zaio, Nafarroaren iparraldeak bere enpresa-jardueraren galera eten ahal izan dezan eta despopulazio-prozesu kezkarriari galga jarri ahal izan diezaion, produkzio-zentro bat bihurtu ahal izateko hartara.

N-121 errepidea 2+1 eredura egokitze aldera aztertzen eta eztabaidatzen ari den proiektua berehala exekutatu den honetan, honako erabaki proposamen hau aurkezten diogu Parlamentu honetako Osoko Bilkurari:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio:

– N-121 errepidea Belate-Bidasoa autobia bihur dezan, helburu hori lortze aldera hartu beharreko erabaki guztiak har ditzan eta egin beharreko jarduketa guztiak egin ditzan lehenbailehen, errepidea 2+1 eredura ekartze aldera aurreikusitako obrak autobia-proiektu izateko egokituz, hori baita alderdi honek aldeztu duen aukera.

– Arriskuen aurkako neurriak har ditzan errepidea autobia bihurtzeko obrak egiten diren bitartean.

– Jarduketa plan bat taxutu dezan, honako arlo hauek jorratuko dituena: komunikazioa, informazioa, jarraipena, hartutako neurrien eraginkortasunaren eta segurtasunaren analisia, neurri horien bilakaera eta obren aurrerapausoekiko duten doikuntza.

– Konpentsazio-neurriak ezar ditzan trafiko astunarengan izan litzakeen afekzioak arintzeko, baldin eta trafiko astuna obrak egin bitartean desbideratu behar izanen balitz tarte batzuetan, eta Nafarroako 2020rako aurrekontuan horretarako partida bat gaitu dezan.

2020ko urtarrilaren 30a

Eleduna: Javier Esparza Abaurrea

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Etxarri Aranazko eta Olaztiko liburutegien ordutegiak pareka ditzan liburutegi sareko gainerakoekin.**

*PATRICIA PERALES HURTADO ANDREAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko otsailaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patricia Perales Hurtado andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita Etxarri Aranazko eta Olaztiko liburutegien ordutegiak pareka ditzan liburutegi sareko gainerakoekin.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Kultura eta Kiroleko Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2020ko otsailaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **MOZIOAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Patricia Perales Hurtado andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Kultura Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko.

Aurreko legegintzaldian –zehazki, 2019ko irailen– luzatu egin zen Nafarroako liburutegien ordutegia, halako moduan non 14:00etatik 20:00etara bitartekoa izatera igaro baita. Aldaketak berekin ekarri zuen liburutegiak ordubete lehena irekitzea. Ordutegia luzatzearen eta aurreratzearen xedea izan zen erabiltzaileekiko interakzioa areagotu eta hobetzea eta liburutegietako langileak udaletako teknikariekiko koordinatzen ahalbidetzea, udal esparruan irakurketa

sustatzeko eta bultzatzeko jarduerak elkarrekin egin ahal izateko.

Udaletako liburutegien lana oso-oso garrantzitsua da; izan ere, ematen duten mailegu-zerbitzuaz gain, kulturagune eta belaunaldi guztietako pertsonen arteko topagune ere badira, non gero eta jarduera gehiago egiten baitira, eta hori mesedegarria da bertako biztanleen bizitza sozialari begira.

Liburutegien irekialdia luzatzea aurrerapauso bat da zerbitzuak herritarren eskarietara egokitzeko eta zerbitzu hobea emateko bidean. Ordutegia luzatzeari buruzko balorazioa oso positiboa da, baina gogora ekarri nahi dugu ezen, arrazoiak arrazoi, bi liburutegi geratu zirela ordutegia luzatu gabe; hain zuzen ere, Etxarri Aranazkoa eta Olaztikoa, gainontzeko liburutegiek eskaintzen duten ordutegitik kanpo geratu baitziren.

Desberdintasun horren ondorioz, liburutegi-sareko gainontzeko herrietakoa baino zerbitzu murriztuagoa daukate bi herri horietako biztanleek gaur egun. Hortaz, eta herri guztiek aukera berberak izan ditzaten, konponbidea eman behar zaio desberdintasun horri, gainontzeko liburutegien ordutegia jarrita liburutegi horietan.

Hori guztia dela eta, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du Etxarri Aranazko eta Olaztiko liburutegiak 2019ko irailean egin ziren ordutegi-aldaketetatik kanpo uzteko arazo teknikoak konpon ditzan eta gainontzeko liburutegiekin parekatzeko egin beharreko izapideak egin ditzan.

Iruñean, 2020ko otsailaren 3an

Foru parlamentaria: Patricia Perales Hurtado

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 2020-2023 aldirako urte anitzeko finantzaketa-hitzarmen bat sina dezan Nafarroako Antzerki Sarearekin.**

### *MAIORGA ERRO RAMÍREZ JAUNAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko otsailaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Erro Ramírez jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita 2020-2023 aldirako urte anitzeko finantzaketa-hitzarmen bat sina dezan Nafarroako Antzerki Sarearekin.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Kultura eta Kiroleko Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2020ko otsailaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **MOZIOAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Kultura eta Kiroleko Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko.

NAS-Nafarroako Antzerki Sarea entitate nabarmena eta solaskide guztiz baliagarria da, 33 udalerrri biltzen baititu. Entitatea bazkideak biltzen joan da sortu zenetik, bat bera ere galdu gabe. Izan ere, 2013an sortu zen, 24 udalerrirekin, eta gaur egun 33 biltzen ditu; halaber, borondate argia dago entitatean oraindik ez dauden herri eta eskualde gehiago biltzeko.

Nafarroako Antzerki Sareak helburu guztiz zehatzak ditu eratu zenetik:

1 Arte eszenikoen eskaintza profesional, askotarikoa eta kalitatezkoa, sustatzea, jarraikortasunez.

2 Bazkideen baliabideak optimizatzea eta beste sare batzuekin harremanak edukitzea.

3 Nafarroako Gobernuko Kultura Departamentuarekin lankidetzan aritzea.

4 Publikoak sortu, prestatu eta fidelizatzea.

Helburu horiei guztiei heldurik, Nafarroako Antzerki Sareak zenbait jarduera eta proiektu prestatu ditu, diharduen herrietan arte eszenikoen garapenerako ekarpena egiten dutenak.

- Nafarroako Antzerki Sarearen arte eszenikoen zirkuitua: Antzerki- eta dantza-konpainia profesionalak produzitutako ikuskizunak eskaintzen ditu –Nafarroakoak lehenetsita–, sareko toki entitateetako gune eszenikoetara bideratuak, helburua izanik haien programazioa biribiltzea kalitate eta interes eszenikoko proposamenekin.

- Oholtzara Salto a Escena. Proiektu berri-tzailea, Nafarroako Kutxa Fundazioaren eta La Caixa Gizarte Ekintzaren laguntzarekin sustatua. Ekimen horren asmoa da arte eszenikoak gazte-engan hurbiltzea, protagonistak izan daitezen.

- Sarrerak online saltzeko sistema. 2014tik online saltzeko zerbitzua dauka, sareko 23 kiderentzat.

- Sareko programazioa. Denbora honetan sareko lana arian ezarri da; horren ondorioz kostuak jaitsi egin dira eta programazio pluralagoa lortu da.

- Irisgarritasuna sustatzea. 2017an Nafarroako Antzerki Sareak bultzatu zuen begizta magnetiko eta soinu anplifikatuko sistemen erosketa bateratua; guztira, 24 udalerrri bat egin zuten. Antzerki irisgarriaren sistema horrek arte eszenikoak entzumen-desgaitasunaren maila ezberdinak dituzten pertsonen eskura jartzen ditu. Ezarri zenetik gero eta gehiago erabiltzen da herri askotan, entzule jakin batzuei, gure zaharrei alegia, ahalbidetuz antzerkiera joatea elkarrizketak galtzeko beldurrik gabe.

- Informazioa gizareratzea. Arte eszenikoen azoketara joanez, programatzaileek programazio proposamenen berri izaten dute eta txosten bat prestatzen dute, kideekin partekatzen dutena.

- Programazioa ezagutaraztea. [www.redteatrosnavarra.com](http://www.redteatrosnavarra.com) web-orriaren beraren edo sare sozialen bidez.

- Bazkideen prestakuntza, sektore artistikoarekiko lankidetzeta eta gure publikoen informazioaren bilketa ere egiten diren jarduera ugarietako beste batzuk dira.

Ekimen horiek guztiak egiten ahal dira entitatearen lan eta aurrekontu jarraiarri esker. Egonkortasun-berme hori gabe ezin dira egin, eta ezinezkoa da proiektu honek aurrera egitea denboran irauteko xedearekin.

Urteaniztasuna eskatzeko justifikazioa:

**Lurralde-kohesioa:** Entitatea osatzen duten 33 udalerririk, lerratze politiko guztietakoak, Nafarroa osoan zehar banatuta daude.

**Egonkortasuna:** Sortu zenetik, Nafarroako Antzerki Sareak urte anitzeko bi hitzarmen izendun izan ditu, 2012-2015 eta 2015-2019 legegintzaldietakoak; beraz, 2020-2023 hitzarmena onetsiz gero, urte anitzeko hirugarren hitzarmena izanen da.

**Etorkizunerako proiektzioa:** Lurralde-ordezkaritza hain handia duen elkarte batek askoz ere zentzu handiagoa du oso epe luzera begiratzen baldin bada. Ildo horretatik, xedea izan daiteke sektoreko gure zeregin estrategikoa garatzea, etorkizunerako helburudun plan estrategiko bat garatzea, beti orainaz hitz egitea saihestuz eta asmo handiko aurrerapauso bat emanez.

**Ziurtasuna:** Hurrengo urteetako aurrekontua zein izanen den jakiteak ziurtasuna ematen digu etorkizunerako gure proiektuak prestatzeko. Programa kulturalak eraginkorrak dira epe ertainera diseinatzeko direnean, baina urtebeterako partidek ez dute haragoko lana ahalbidetzen, urteroko ziurgabetasuna dela-eta. Lan dinamiketan ere eragiten du ziurgabetasun horrek. Jakin gabe zein den 2021eko aurrekontua, ezin da 2020an lanik aurreratu; eta, horrenbestez, berriro ere beharturik suertatuko dira jardueraren zatirik handiena urteamaierara eramatera. Hori aurrez aurre kontrajarri legoke arte eszenikoen zirkuituak daukan filosofiarekin, asmoa baita jarduera lehen seihilekoan indartzea.

**Aurreikuspena:** Etorkizunari begirako aurreikuspenak halaber modua ematen du egunak hobekiago hautatzeko eta gune horien eta Kultura Departamentuaren gainerako programen arteko kontraprogramazioa saihesteko.

**Kudeaketa:** Aurrekontu-egonkortasunak diruzaintzako arazoak kentzen ditu. Eta gehitzen baditugu ziurgabetasuna eta ordainketak dirulaguntzaren kontura ematearen dinamika, jokabideak halabeharrez behar du oso kontserbadorea izan, lanerako plana planteatzerakoan.

**Ordainketak:** Nafarroako Antzerki Sarean lan handia egin dute konpainiei beren lana egin dute netik egun gutxi pasata ordaintzeko. Horren emaitza da ez dutela sektorearen ezegonkortasuna

haiek jasaten, lanbidearen duintasunaren mesedetan. Ezegonkortasunak sareko langileei berei ere eragiten die. Aurrekontua zein izanen den ez jakiteak eta hitzarmen-sinaketa geroratzeak ordainketak atzeratzea dakarte, eta ondorioa izan daiteke nominak garaiz ezin ordaintzea.

Nafarroako Antzerki Sarearen zirkuitua.

Nafarroako Antzerki Sarearen programa berriazkoa da, Nafarroako Gobernuako Kultura Departamentuarekin hitzartuta. Zirkuitua sortu da erantzuna ematearren antzerkia sustatzeko plana eta dantza sustatzeko plana idaztean antzeman ziren eskarietako askori. Aipatu agiri horiek gakoak dira Nafarroako Gobernuaren Kultur Plan Estrategikoa. Beharizan horiek antzeman ziren parte-hartze prozesu bana egin ondoren, zeinetan egon baitziren zeresana zuten alde guztiak: profesionalak, entitate sozialak, publikoak...

Horren bidez, ikuskizunak eskaintzen dira, antzerki- eta dantza-konpainia profesionalak eginak –ahal dela, Nafarroakoek–, konpainiek aurkezten dituzten proposamenetatik abiatuta; hartzaileak Nafarroako Antzerki Sareko udal gune eszenikoak dira.

Proiektuaren oinarria da sareko bazkide diren gune eszenikoen programazioaren osagarritasuna, beste irizpide batzuei jarraitzen dieten ikuskizunen programazio bereizia sustatuz. Zirkuituaren filosofia:

- Kalitate-irizpideak: haiek ezartzeko, kontuan hartzen dira lortutako sariak, beste zirkuituetan egotea, eskuratutako diru-laguntza eta laguntza publiko edo pribatuak. Gainera, propio eraturako Batzorde Artistiko batek iritsi diren proposamenak baloratzen eta bahetzen ditu.

- Interes artistikoaren irizpideak: kultura, gizarte edo hezkuntza arloko oinarri bat duten obrak sustatzea, entretenimendua xede bakartzat dutenen aurrean.

- Laguntzea arte eszeniko ahulenei, minoritarioei, eskuratzen zailenak direnei. Dantza, zirkoa (aretoan) eta antzerki ez-komertziala, gizartetik hurbil dauden gaiak dituztenak.

- Gune eszenikoei laguntzea programazio-erabaki arriskutsuak hartzerakoan, publikoarengan kapital eszenikoa erraztu eta pizteko asmoarekin.

- Zirkuituak, funtsean, balio behar du Nafarroan egitura profesional bat lagundu eta sortzeko.

- Herritar guztiak gerturatzeko eta gozatzeko pizgarria: eskaintza deslokalizatua.

Laburbildurik, lehentasuna eman behar zaie kalitate artistiko egiaztatua duten proposamenei, lengoia berritzaileak eduki eta komertzialtasunetik aldentzen direnei, inklusiboak izan eta errealtatearekin lotzen diren gai sozialen aldeko apustua egiten dutenei. Beraz, bultzatu behar dira filosofia hori betetzen duten proposamenak. Izan ere, haien programazioa zailagoa izan ohi da.

Zirkuituaren kronograma: nahitaezko urteaniztasuna

Zirkuituaren programazioa kasuko urteko udaberri eta udazkenean gauzatzen da. Hala ere, programazio hori diseinatu ahal izateko, parte hartzen duten konpainiekin eta gune eszenikoekin lankidetzaz etengabe, bai eta diseinu eta finantziatorako lankidetzan aritzen diren entitateekin ere (Nafarroako Gobernu), deialdiaren diseinu eta exekuzioan hasi behar da lanean, gutxienez ere aurreko urteko irailetik.

Gutziz beharrezkoa da, arte eszenikoen arloan, programazio-lana kasuko urtetik harago iristea. Nafarroako Antzerki Sarean elkartutako toki entitateetako gune eszenikoek urte bakoitzerako beren programazioak hilabete askoko aurrerapenareki diseinatzen dituzte. Hori horrela, dagokion urtera itxoiten bada lanari ekiteko, gertatuko zaigu bai gune eszenikoek bai konpainiek egunak okupatuta dituztela jadanik, eta programa ezin izanen da egoki gauzatu.

Ondotik kronograma logiko bat zehazten da, zirkuituaren beharrianekin bat etorriko litzatekeena:

- Abuztua-iraila: deialdiaren oinarriak idaztea.
- Urria: epea irekitzea proposamenak aurkezteko eta oinarriak zabaltzeko.
- Urria-azaroa: proposamenak jaso eta agiriak hodeian antolatzea Batzorde Artistikoari eskuragarriagoa izan dakion.
- Azaroa: balorazio amankomuna Batzorde Artistikoaren aldetik eta obrak aukeratzea katalogorako.
- Abendua – 1. hamabostaldia: Argitara ematea online katalogoa (Intranet) eta proposamenak aukeratzeko hasteko toki entitateen aldetik.
- Abendua – 2. hamabostaldia: obren aukeraketa udaletan.
- Urtarrila: datak eta obrak aukeratzeko prozesua ixtea eta kontratuak sinatzea.
- Urtarrilean eta otsailan: "Programazioa" aurkeztea: prentsaurrekoa.

- Programazioaren exekuzioa, komunikazioa, kontabilitateko gai administratiboak eta abar luze bat.

- Otsaila-urria: programazioa gune eszenikoetan.

- Jardueren ezagutarazpena eta marketina eta programazio bakoitzerako kartela sortzea: prozesu jarraitua.

- Jarraipen administratibo eta kontabilitatekoa: konpainien fakturak jasotzea eta ordaintzea: prozesu jarraitua.

- Jardueraren azkeneko ebaluazioa (eta fase bakoitzaren ebaluazio jarraitua): aztertzea helburuak noraino bete diren eta proiektuaren definizioa zuzena ote den, akatsak ezagutzeko eta balizko hobetze-bideak definitzeko.

Nafarroako Gobernu Kultura Departamentuarekin lankidetzan aritzea.

Programak bilatzen du Nafarroako Gobernu Kultura Departamentuak berak arte eszenikoen arloan egiten dituen gainerako politika kulturalen osagarri izatea. Horregatik, Kultur Ekintzako Departamentuarekiko harremana jarraitua da eta izan behar da proiektua diseinatzerakoan: hala helburuak nola barneko gai guztiak, lagungarri izanen direnak modu egokian bete daitezzen.

Entzute-prozesuak, inplikaturako aldeekin: hobekuntza jarraitua.

Zirkuituak programaren ebaluazioarako jardunaldiak egiten ditu, bai parte hartzen duten gune eszenikoekin, baita egun diren arte eszenikoetako nafar profesionalen elkarrekin ere: NAPAE eta AE.SZENA.

Horregatik dago etengabeko bilakaeran programa, urtez urte, eta uste dugu hain zuzen orain-txe dela, hirugarren edizioa hastear dagoenean, haren helburuak neurri oso handi batean betetzeko bidean dauden unea. Horren frogarri dugu 2020. urte honetarako diseinatutako programazioa, zeinetan antzematen baita apustu garbi bat egiten dela zirkuituaren filosofia horri erantzuten dioten nafar konpainien alde, eta bide konbentzionaletik urrutien dauden proposamenei laguntzearen alde (bereziki dantza- eta zirku-proposamenei), baina ateak itxi gabe Nafarroatik kanpoko kalitate goreneko konpainia batzuek programazioan agertzeko modua izateari, halako moldez non gure publikoei aukera eskainiko baitzaie osterantzean Nafarroan ezin ikusiko lituzketen lanak ikusteko.

Baldin eta programa hobetzen eta sektorearen beharrian eta eskariei erantzuten dieten helburu



batzuk betetzen jarraitzekoak bagara, erakundeek egiten dituzten beste ekintza batzuen osagarri modura, beharrezkoa da bermatuta egon dadin etorkizunari begirako lan-aukera.

Hori guztia dela eta, ondoko erabaki proposamena aurkezten dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du hitzarmen bat sina dezan epe-

rik laburrenean, 2020-2023 aldirako urte anitzeko finantzaketarako, NAS-Nafarroako Antzerki Sarearekin, markatutako helburuak eta ematen duten zerbitzuaren aurrerabidea ahalbidetze eta optimizatzeko aldera.

Iruñean, 2020ko otsailaren 6an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lantalde bat sor dezan eta Europar Batasunaren Nekazaritza Politika Erkidearen aitzinean Nafarroak izan beharreko jarrera zehaztu dezan.**

### *MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko otsailaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita lantalde bat sor dezan eta Europar Batasunaren Nekazaritza Politika Erkidearen aitzinean Nafarroak izan beharreko jarrera zehaztu dezan.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2020ko otsailaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **MOZIOAREN TESTUA**

Euskal Herria Bildu Nafarroa talde parlamentarioko kide Maiorga Ramírez Errok, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 196. artikulua eta hurrengo babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Europar Batasunaren Nekazaritza Politika Erkideak eremu horretako nekazaritza eta elika-

dura politikak egituratzen ditu, asmo horretarako urtero 50.000 milioi euro bideratuz. Egun, irizpideen definizio berria eta jasangarritasunaren eta ingurumenarekiko konpromisoa eztabaidagai ditugu. Horren baitan, Estatu bakoitzak bere diagnostiko nazionala egin behar du. Horrela, Frantziako estatuak 2019ko abuztuan berea aurkeztu zuen (*Projet de diagnostic national en vue du futur Plan Stratégique National de la PAC post 2020*). Espainiako gobernu berriak, bertalde, udaberrirako argitaratuko duela erran du eta, adibidez, Andaluziako Parlamentuak ere lan batzorde berezi bat martxan jarri du beraien jarrera zehazte aldera.

Horregatik guztiarengatik, eta gaiak Nafarroarako duen garrantziari jarraiki, Nafarroako Euskal Herria Bildu talde parlamentarioak hurrengo erabakia mahaigaineratzen du.

Erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du lantalde bat osa dezan eta martxan jar dezan, Europar Batasunaren Nekazaritza Politika Erkidearen aitzinean Nafarroak izan beharreko jarrera zehazteko. Talde horretan Nafarroako Gobernuak, talde parlamentarioek, eragile sindikalek eta elikadura eta ingurugiroaren arloko eragile sozialek hartuko dute parte.

Iruñean, 2020ko otsailaren 6an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

## **Adierazpen instituzionala. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak bat egiten du Zientziako Emakumearen eta Neskaren Nazioarteko Eguna-ekin.**

### *ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2020ko otsailaren 10ean egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak bat egiten du Zientziako Emakumearen eta Neskaren Nazioarteko Egunaren ospakizunarekin.

2. Nafarroako Parlamentuak berresten du konpromisoa duela genero-arraila diziplina guztietan, bereziki STEM deiturikoetan, desagerrarazteko lanean jarraitzeko.

3. Nafarroako Parlamentuak aitortzen du emakumeek eta neskek funtsezko eginkizuna dutela

komunitate zientifikoan eta teknologikoan, eta beharrezkoa dela alor horietan duten parte-hartzea sustatzea.

4. Nafarroako Parlamentuak uste du beharrezkoa dela lan egitea komunitate zientifikoak eta teknologikoak garapen jasangarriari eta emakume eta nesken ahalduntzeari eta zientzia, teknologia eta berrikuntzaren alorreko parte-hartzeari eta ekarpenei egiten dieten ekarri garrantzitsua aitortu eta sustatzeko” (10-20/DEC-00011).

Iruñean, 2020ko otsailaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**Galdera, POT 2-Nafarroa Atlantikoko Lurralde Antolamenduko Planaren eta POT 5-Ebroren Ardatzaren Lurralde Planaren esparruetan paisaiaren gizarte-ikuskerak dela-eta garatutako prozesuen emaitzei buruzkoa.**

*MARÍA ARANZAZU BIURRUN URPEGUI ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko otsailaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Aranzazu Biurrun Urpegui andreak aurkeztutako galdera, POT 2-Nafarroa Atlantikoko Lurralde Antolamenduko Planaren eta POT 5-Ebroren Ardatzaren Lurralde Planaren esparruetan paisaiaren gizarte-ikuskerak dela-eta garatutako prozesuen emaitzei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko otsailaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Arantza Biurrun Urpegui andreak,

Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio bigarren lehendakariorde eta Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Lurralde Antolamenduko Planak lehen saiakera bat izan ziren Paisaiaren Europako Hitzarmenaren arabeko paisaia-kontzeptura hurbiltzeko, halako moduan non jarraibide batzuk ezarri baitziren Nafarroan paisaia-politika garatzen jarraitzeko.

Zer emaitza ekarri dute POT 2-Nafarroa Atlantikoko Lurralde Antolamenduko Planaren eta POT 5-Ebroren Ardatzaren Lurralde Antolamenduko Planaren esparruetan paisaiaren gizarte-ikuskerak dela-eta garatutako prozesuek? Nola emanen zaie jarraipena?

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 31n

Foru parlamentaria: Arantza Biurrun Urpegui

## **Galdera, Paisaiaren Europako Hitzarmenaren arabeko paisaia-politika ezartzeari buruzkoa.**

*MARÍA ARANZAZU BIURRUN URPEGUI ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko otsailaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Aranzazu Biurrun Urpegui andreak aurkeztutako galdera, Paisaiaren Europako Hitzarmenaren arabeko paisaia-politika ezartzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko otsailaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Arantza Biurrun Urpegui andre-

ak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio bigarren lehendakariorde eta Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Paisaiaren Europako Hitzarmena, zeina Florentzian sinatu baitzen 2000n eta Espainiak 2007an berretsi baitzuen, autonomia erkidegoetako eta tokiko administrazioen konpromiso politiko bat da, paisaiaren babesa, antolamendua eta kudeaketa sustatzea helburu.

Zure departamentuak zer ildo garatu du Paisaiaren Europako Hitzarmenaren arabeko paisaia-politika ezartzeko foru erkidegoan?

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 31n

Foru parlamentaria: Arantza Biurrun Urpegui

## **Galdera, Nafarroako Aurrekontu Orokorren proiektua Kulturaren eta Kirolaren arloetan zehazteari buruzkoa.**

*MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko otsailaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Aurrekontu Orokorren proiektua Kulturaren eta Kirolaren arloetan zehazteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko otsailaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak Legebiltzarraren Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Aurrekontu Orokorren proiektua departamentuak Kulturaren eta Kirolaren arloetan zehazteari dagokionez, honako hau jakin nahi dut:

Departamentuak zer lehenetsun eta zer printzipio izan du proiektua taxutzean?

Iruñean, 2020ko otsailaren 4an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

## **Galdera, Superser zenaren lurzatiak saltzeari eta bertan paratuko den merkataritza-proiektuari buruzkoa.**

### *MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko otsailaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, Superser zenaren lurzatiak saltzeari eta bertan paratuko den merkataritza-proiektuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko otsailaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Legebiltzarraren Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Superser zenaren lurzatiak saltzeari eta bertan paratuko den merkataritza-proiektuari dagokienez, honako hau jakin nahi dut:

Operazio hori bat al dator betiko saltoki txikiak babestearekin?

Iruñean, 2020ko otsailaren 4an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

## **Galdera, D ereduan aurrematrikulatzeko kanpainari buruzkoa.**

### *BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko otsailaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkeztutako galdera, D ereduan aurrematrikulatzeko kanpainari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko otsailaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Bakartxo Ruiz Jaso andreak, EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko bozeramaile denak, Legebiltzarraren araudiari jarraikiz, ondoko ahozko galdera egin nahi du, Herritarrekiko Harremanetarako kontseilari Ana Ollo andreak Osoko Bilkuran erantzun dezan.

Zergatik utzi dio Euskarabideak aurtengo aurrematrikulazio aldiaren D ereduaren aldeko kanpaina egiteari?

Iruñean, 2020ko otsailaren 6an

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

## **Galdera, Foruzaingoko Trafikoaren eta Bide Segurtasunaren Arloak zerbitzu hori eskusibotasunez emateko beharko lituzkeen foruzain berrien kopuruari buruzkoa.**

*ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko otsailaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamari-que jaunak aurkeztutako galdera, Foruzaingoko Trafikoaren eta Bide Segurtasunaren Arloak zerbitzu hori eskusibotasunez emateko beharko lituzkeen foruzain berrien kopuruari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2020ko otsailaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamari-que jaunak honako ahozko galdera hau aurkezten dio Legebiltzarreko Mahaiari, Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentuak batzordean ahoz erantzun dezan:

Bat etorri Bat Zuzendaritza Nagusian dauzkaten azterlan eta txostenekin, eta aintzat hartuta egun Foruzaingoa den Trafikoaren eta Bide Segurtasunaren Arloan eta Guardia Zibilarena den Trafiko Taldean zerbitzu ematen duten kideen kopurua, Gobernuaren ustez aski izanen al litzateke arlo horrek 100 agente gehiago izatea, zerbitzu hori eskusibotasunez eman ahal izateko?

Iruñean, 2020ko otsailaren 6an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamari-que

## **Galdera, trafikoa, ibilgailu motordunen zirkulazioa eta bide-segurtasuna direla-eta Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilaria zenak Estatuko aurreko Gobernuari 2019ko abenduaren 20an igorri zion Transferentzien Batzordearen akordio-proposamenari buruzkoa.**

*ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko otsailaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamari-que jaunak aurkeztutako galdera, zeina baita trafikoa, ibilgailu motordunen zirkulazioa eta bide-segurtasuna direla-eta Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilaria zenak Estatuko Gobernuari 2019ko

abenduaren 20an igorri zion Transferentzien Batzordearen akordio-proposamenari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2020ko otsailaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamarique jaunak honako ahozko galdera hau aurkezten dio Legebiltzarreko Mahaiari, Lehendakariatzako, Berdintasuneko, Funtzio Publiko eta Barneko Departamentuak batzordean ahoz erantzun dezan:

Gobernuak mantendu eta bere egiten al du trafikoa, ibilgailu motordunen zirkulazioa eta bide-

segurtasuna direla-eta Lehendakariatzako, Funtzio Publiko, Barneko eta Justiziako kontseilaria zenak Estatuko aurreko Gobernuari 2019ko abenduaren 20an igorri zion Transferentzien Batzordearen akordio-proposamena?

Iruñean, 2020ko otsailaren 6an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

**Galdera, Ekonomia Zirkularra Garatzeko Agenda betetzeari buruzkoa.***AINHOA AZNÁREZ IGARZA ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko otsailaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ainhoa Aznárez Igarza andreak aurkeztutako galdera, Ekonomia Zirkularra Garatzeko Agenda betetzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2020ko otsailaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteari atxikitako foru parlamentari Ainhoa Aznárez Igarza andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak Legebiltzarraren hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Azken Eurobarometroaren arabera, klima-aldaketa da europar herritar gehienek lehen edo bigarren kezka, ingurumenaren arloko beste kezka batzuekin batera; esate baterako, kutsadura edo deforestazioa. Eta orain dela urtebete SEO/Birdlife eta Ecoembe ingurumen-entitateek garatu zuten Libera proiektuko Actitudes frente a la basurala txostenaren arabera, nafarren % 57 kezkatuta zegoen zaborra naturaguneetan botatzen delako.

Kezka horiek ikusita, Europar Batasunak erabaki du bilioi bat euro inbertituko duela hurrengo hamar urteotan, klima-aldaketari aurre egiteko.

Badakigu Nafarroako Gobernuak, Parlamentu honek premiatuta, Garapen Jasangarriko Helburuekin lotutako gure erkidegoko politiken jarraipena egitea erabaki zuela aurreko legegintzaldian, eta iazko apirilean Ekonomia Zirkularra Garatzeko Nafarroako Agenda onetsi zela.

Honako hau jakin nahi dugu: Nafarroako Gobernuak zer ekintza zehatz egiten ari da Ekonomia Zirkularra Garatzeko Agenda betetzeko?

Iruñean, 2020ko otsailaren 6an

Foru parlamentaria: Ainhoa Aznárez Igarza

## **Galdera, Erriberriko Oinarrizko Osasun Eskualdeko osasun-arretari buruzkoa.**

*CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko otsailaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkezturiko galdera, Erriberriko Oinarrizko Osasun Eskualdeko osasun-arretari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintakoari jarraikiz idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko otsailaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Cris-

na Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

1.- Erriberriko Oinarrizko Osasun Eskualdeko zenbat umek eskatu dute pediatra oinarrizko beste osasun eskualde batean, 2019ko urtarrietik galdera honi erantzuten zaion egunera arte?

2.- Azkoiengo Oinarrizko Osasun Eskualdean zenbat erreklamazio aurkeztu dira, 2019ko urtarrietik galdera honi erantzuten zaion egunera arte, Osasun Departamentuak Erriberri gaueko larrialdi-zerbitzua murrizteagatik eta Pitillasen eta Beiren pediatrarik ez egoteagatik eta osasun-arreta berrantolatzeagatik?

3.- Osasun Departamentuak zer neurri aurreikusten du Erriberriko Oinarrizko Osasun Eskualdean kalitatezko osasun-arreta berrezartzeko?

Iruñean, 2020ko urtarrilaren 31n

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

## **Galdera, Iruñeko espetxeko presoiei ematen zaien osasun-arretari buruzkoa.**

*CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko otsailaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkezturiko galdera, Iruñeko espetxeko presoiei ematen zaien osasun-arretari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintakoari jarraikiz idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko otsailaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

Nafarroako Gobernuak Osasun Departamentuak inolako neurri eragingaririk ezarri al du Iruñeko espetxean preso dauden pertsonen osasun-arreta egokia bermatze aldera espetxe horretan zerbitzu medikorik izan ez den egunetan edo zerbitzu mediko hori langile-eskasiagatik murriztu den egunetan? Ezarritako neurriak xeheki ezagutu nahi ditut.

Osasun Departamentuak beste zer neurri ezartzeko asmoa du espetxeko sendagile-arloko egungo nahiz etorkizuneko arazoak erantzuteko?

Iruñean, 2020ko otsailaren 3an

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén



## **Galdera, Doneztebeko Oinarrizko Osasun Eskualdeko pediatriako lanpostuari buruzkoa.**

*CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko otsailaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkezturiko galdera, Doneztebeko Oinarrizko Osasun Eskualdeko pediatriako lanpostuari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko otsailaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarraren

Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

1.- Zenbat denbora egon da bete gabe, 2018ko urtarriletik galdera honi erantzuna ematen zion egunera arte, Doneztebeko Oinarrizko Eskualdeko pediatriako lanpostua?

2.- Departamentuak zer neurri hartu du lanpostu hori betetzeko?

3.- Noiz aurreikusten duzue behin betikoz betetzea?

4.- Osasun Departamentuak nola ase ditu Doneztebeko haurren laguntza pediatrikoaren arloko beharrezan, pediatriako lanpostua bete gabe egon den epeetan?

5.- Osasun Departamentuak zer neurri dabil gogoan Nafarroako haur guztiei laguntza pediatriko ekitatezkoa eta eskuragarria bermatzeko?

Iruñean, 2020ko otsailaren 3an

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

## **Galdera, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoko langileak hautatzeko prozesuei buruzkoa.**

*MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko otsailaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkezturiko galdera, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoko langileak hautatzeko prozesuei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko otsailaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak,

Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoak eta korporazioko enpresa bakoitzak langileak hautatzeko aldera egindako prozesuei dagokienez, honako hau jakin nahi dut:

Lehen. Langileak hautatzeko enpresa pribatuek 2015etik gaur bitarte egindako langile-hautapeneko prozesuen bitartezko kontratazioen kopurua, enpresaz enpresa.

Bigarrena. Langileak hautatzeko enpresa pribatu horiei 2015etik gaur bitarte ordaindutako zenbatekoa, enpresaz enpresa.

Hirugarrena. Langileak hautatzeko enpresa pribatua hautatzeko aldera zer prozesu egin den kasu bakoitzean.

Iruñean, 2020ko otsailaren 4an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

## **Galdera, Nasuvinsak sinatuta dauzkan eta sinatzeko asmoa duen hitzarmenei buruzkoa.**

*MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko otsailaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkezturiko galdera, Nasuvinsak sinatuta dauzkan eta sinatzeko asmoa duen hitzarmenei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko otsailaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dakion:

Iragan astean hedabideei esker jakin genuen Nasuvinsak hitzarmen bat sinatu nahi duela Tuterako Udalarekin, Coscolin Labearen proiektua egiteko, 8,3 milioi euroko kontsignazioarekin.

Nasuvinsak sinatuta dauzkan eta sinatzeko asmoa duen hitzarmenei dagokienez, honako hau jakin nahi dut:

Lehen. Galdera hau jasotzen den egunean toki entitateekin indarrean dauden hitzarmen guztien zerrenda, zehazturik proiektuaren ezaugarriak eta kontsignatutako zenbatekoa.

Bigarrena. Toki administrazioekin nahiz bestelakoekin sinatzeko asmoa duen hitzarmenen zerrenda, zehazturik proiektuaren ezaugarriak, aurreikusitako baliabideak eta egutegia.

Iruñean, 2020ko otsailaren 4an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

---

## **Galdera, etxebizitza babestuak direla-eta administrazio publikoak daukan lehentasunez erosi eta atzera eskuratzeko eskubidea baliatzeari buruzkoa.**

### *MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko otsailaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez jaunak aurkezturiko galdera, etxebizitza babestuak direla-eta administrazio publikoak daukan lehentasunez erosi eta atzera eskuratzeko eskubidea baliatzeari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko otsailaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

Etxebizitza babestuak direla-eta administrazio publikoak daukan lehentasunez erosi eta atzera eskuratzeko eskubidea baliatzeari dagokionez, honako hau jakin nahi dut:

Zenbat alditan baliatu da eskubide hori 2015etik hona? Zehaztu operazio horietako bakoitza.

Iruñean, 2020ko otsailaren 4an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

## **Galdera, Superser zenaren eraikinak eraisteari buruzkoa.**

*MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko otsailaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkezturiko galdera, Superser zenaren eraikinak eraisteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko otsailaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

Superser zenaren eraikinak eraisteari dagokionez, honako hau jakin nahi dut:

Superser zenaren eraispena hasi zenetik gaur arte zer kostu izan du eraispenak eta lursail osoaren egokitzapenak (eraikinak botatzea, obra-hondakinak tratatzea, eta abar)?

Iruñean, 2020ko otsailaren 4an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

## **Galdera, Tafallako saihebidetako obrei buruzkoa.**

*JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2020ko otsailaren 10ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak aurkezturiko galdera, Tafallako saihebidetako obrei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2020ko otsailaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

1. Zenbat denbora uste duzue falta dela Tafallako saihebidetako obrak bukatzeko?

2. Obraren zer ehuneko egin da orain arte?

Iruñean, 2020ko otsailaren 4an

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez